

## ALKATEARI

Talde Popularreko zinegotzi Vanesa Vélez De Pablosek, Udalbatzaren Organo Araudiaren 98. artikulua ematen duen babesa aintzakotzat hartu, eta KONTROL MOZIO hau dakar, Ogasun Batzordean Egiako komisaria mistoari buruz aurkeztutako interpelazioaren ondorioz.

## JUSTIFIKAZIOA

Gobernu-taldea osatzen duten alderdiek sinatutako gobernu-programan herritarren segurtasunaren arloko hiru ekimen jasotzen ziren: Udaltzaingoko plantilla handitzea, material egokitu berria erostea eta zentro operatibo berriak abian jartzea (ekialdeko barrutiko bitarteko komisaria eta Egiako komisaria mistoa). Hala ere, Segurtasuneko zinegotzi ordezkariak batzordean erantzun zuen zentro horietako bat ere ez dela martxan egongo legegintzaldi hau amaitu baino lehen.

Badakigu gai hori, beste batzuk bezala, zeharkakoa dela, eta Udaleko hainbat atal inplikatzeko dituela. Hala ere, ez dugu ulertzen zergatik ez diren bizkortu behar bi zentroak berandu baino lehen errealitate izateko egin beharreko izapideak.

Hori dela eta, hauxe da gure

## KONTROL MOZIOA

1. Udaleko Osoko Bilkurak gobernu-taldeari eskatzen dio izapideak bizkortzeko, kasu honetan hirigintzakoak, Udaltzaingoaren zentro operatibo berriak ahalik eta epe laburrenean errealitate izan daitezen.
2. Udalbatzak gobernu-taldeari eskatzen dio, Hirigintza Sailaren inguruabarrek hala eskatzen badute, kanpoko enpresa bat kontratatzeko, Egiako komisaria mistoa eta ekialdeko barrutiko bitarteko komisaria irekitzeko behar diren dokumentuak idatz ditzan.
3. Udaleko Osoko Bilkurak gobernu-taldeari eskatzen dio gobernu-taldeak bere programan aurkeztu zituen segurtasunaren arloko beste bi ekimenak 2027ko aurrekontuetan islatuko den lehentasun bat izan daitezela; batez ere, Udaltzaingoaren plantilla handitzeari buruzkoa.

Donostia, 2026ko urtarrilaren 23a

Vanesa Vélez De Pablos

Udaleko Talde Popularreko zinegotzia